

Zure txokoa

Kaixo! Ni **Olatz** Leturiaga naiz, 6 urte ditut eta Zarauzkoa naiz. Marrazki hau bidaltzen dizuet XINGOLAn argitaratzeko. Ea gustatzen zaizkizuen!

Hurren arte!!!



zorion agurrak

Joan den igandean, otsailaren 9an, Manex Urrutiaren urtebetetze eguna izan zen. Beraz, Azpilketako eskolako guztien partez anitz urtez. Zorionak, Manex!!!



Zumaiaiko **Oikia** ikastetxeko haurrek marrazki ugari bidali dizkigute XINGOLARA. Ondorengo hauek, zehazki, **Beñat** Manzisorrek eta **Janire** Fernandezek egindako marrazkiak dira.



Janire

Oso marrazki politak dira!!



Beñat

Kaixo, lagunak!! Ni **Martxel** Intxausti naiz, eta 5 urte ditut. Marrazki honetan Xango matxinsaltoa marraztu dut, eta olerki bat ere idatzi dut.

*Mendian
lar artian
aurkitzen da
loretxo bat
aurrian matxinsalto bat...*

Laster arte!!!!



harremanak

Kaixo, lagun:

Nire izena Fernando da, hamar urte ditut, eta Zallan bizi naiz. Mimetiz eskolan ikasten dut, 5. mailara joaten naiz. Zalla herri polita da, eta ibai batek zeharkatzen du: Kadagua. Nik lagun asko ditut, baina gehiago egin nahi ditut; horretarako bidaltzen dut eskutitz hau.

Nire helbidea:

Fernando Miguelez
Juan Antonio del Yermo 2, 1E
48860 Zalla
Bizkaia

Kaixo:

Nik Eder dut izena, 11 urte ditut, eta mutil zintzoa naiz; begi marroiak ditut, eta ile beltza. Ez dut betaurrekorik, eta 152 cm neurtzen ditut. Polita naiz, azkarra naiz. Neska polit bat bilatzen dut, baina betaurreko barik. Zallan bizi naiz. Futboleko jokatzen dut. Espero dut zuk laster idaztea.

Eder Dominguez Bayon
El Charco auzoa 31, 3D
48860 Zalla
Bizkaia

Kaixo, lagun:

Nire izena Nekane da, 10 urte ditut, eta 5. mailan nago. Nik ahizpa bat daukat Ainara izenekoa, eta 15 urte ditu. Ni Enkarterriko herri batean bizi naiz, Zallan. Zalla niretzat herri polita da, ez da handia, eta ezta txikia ere. Parkeak ditu, eta landa batzuk. Ni Mimetiz H.I. eskolara noa. Eskutitz hau bidaltzen dut lagun berriak egiteko. Idatzi laster!! Hona hemen nire helbidea:

Nekane Etxebarria
Kosme Bibanko kalea 3, 2 ezk.
48860 Zalla
Bizkaia

Arduraduna: Nagore Etxebarria Pikabea

Bidali zure gutunak helbide hauetara:

Posta elektronikoa

xingola@egunkaria.com